

BERRI OROKORRAK

2025eko otsailaren 28an 22. zenbakia

Jai egunak

Inauteriak direla eta, martxoaren 3an eta 4an, **astelehena eta asteartea**, Ikastolan eta Haur Eskolan **jai egunak** izango direla gogorarazten dizuegu.



Jangela-zerbitzua

Jangelako bazkaldarrek martxoan izango duten menua honakoa da:

◆ 3-16 urtekoen menuak

[Martxoko menua](#)

[Intolerantziak eta alergia](#)

◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alegia eta intolerantzia menuak](#)



Gogoratu, izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinarazi behar dela, gutxienez bezperan, 13:00ak aurretik, **baita egun soltekako kasuetan ere**. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko. Hala egiten ez bada, eskaturiko menua kobratu egingo da.

Agerialdeko eraikinean lanak

Udalak adierazi digu, martxoaren 3an Agerialdeko eraikinean eguzki plakak jartzen hasiko direla, hori dela eta gure eguneroko antolaketan aldaketa batzuk egin beharko ditugu.

Aste horretan hasita eta obrak bukatu arte **ikasle guztiak jolaslekuko sarrera erabiliko dute** sartzeko eta irtetzeko. Aurrekaldeko errepidea behar bezala hesituko da, arriskuak ekiditeko. Beraz, hesigune horiek errespetatzea eskatzen dizuegu.

Obrek hiru aste inguru iraungo dutela aurreikusten da. Bitartean, **ikasleak eta familiak** jolaslekuko langaren ondoan **ez pilotzea eskatzen dugu**, errepidea ondoan dago eta arriskutsua izan daiteke, **8:45 eta 14:15 baino lehen ikastolara ez etortzea eskatu nahi dizuegu, langa ordu horretan irekiko baita.**

Obrak bukatzen direnean eta eremu horiek erabilgarri daudenean jakinaraziko zaizue.



Usurbilgo Udala

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatzen da. Aurten larunbata denez, ostiralean, martxoaren 7an ospatuko dugu ikastola osoan. Horretarako, zuen seme-alabak **zerbait morea jantzita edo apaingarri moreren batez etortzera gonbidatu nahi ditugu.**



Zarauzko Ikastolari laguntza

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu Zarauzko Ikastolari ezarritako isuna ordaintzeko egindako ekarpen guztiengatik! **IKASTOLAK EUSKAL HERRIA ERAIKITZEN!!**

Eskerrik asko familiei, langileei, ikasleei eta LH 3. mailako ikasleei azoka antolatzeagatik. Guztira, 1.225€ bildu ditugu!!!



Udako aisialdi-eskaintza, ZIRIMOLA

Aurten ere, Zirimola aisialdi-taldeak, udako eskaintza zabala eskaintzen du. [Hemen](#) aurkituko duzue, eskaintza guztiaren informazio xehetua.



Ondo pasa pasatu gabe

Tolosako Udalak, inauteriak direla aprobetxatuz, nerabe eta gurasoentzat alkohola eta drogen inguruko [ohar hau](#) plazaratu du eta interesgarria iruditzen zaigu irakurri dezazuen eta etxean landu dezazuen.



HAUR HEZKUNTZA

INAUTERIAK

Gaur, otsailak 28, goizeko 10:30ean inauteri festa egingo dugu Mikel Laboa plazan, eguraldi txarra egingo balu, ikastolako frontoian egingo genuke.

Goizean haurrak zakuarekin jantzita etorriko dira gelara eta ,nahi duena, galtzerdi-abarkak oinetan jantzita. Aurten, berrikuntza bezala, gela bakoitzean AURPEGIAK MARGOTZEKO TXOKO bat jarriko dugu 9:00etatik 9:45era. Beraz, gurasoek aukera izango duzue norbere haurrari eta gainontzekoei aurpegia margotzeko. Nahi duenak etxetik margotuta etortzeko aukera ere izango du.

Eguerdian haurrak ikastolan bertan jasoko dituzue, beti bezala.

OHARRA: Arratsaldean ere haurrak zakua jantzita bidali, gure inauteri eguna 16:30ean bukatzen baita.



Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatzen da. Aurten larunbata denez, ostiralean, martxoaren 7an ospatuko dugu ikastola osoan. Horretarako, zuen seme-alabak **zerbait morea jantzita edo apaingarri moreren batez etortzera gonbidatu nahi ditugu.**



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak

LH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIAU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



BEGISARE elkarteko kideen bisita LH 1era

Datorren ostegun arratsaldean, BEGISARE elkarteko kideen eta gelako guraso baten bisita izango dugu sentsibilizazio saio bat burutzeko. Ikusmenaren urritasuna edo itsutasunaren ondorioz kaltetutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da elkarte honen helburua.



Kristina-Eneara irteera

Eguraldiak laguntzen badu, **martxoaren 7an**, ostirala, **LH 1ekook** irteera egingo dugu **Kristina-Eneara**.



Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatzen da. Aurten larunbata denez, ostiralean, martxoak 7an ospatuko dugu ikastola osoan. Horretarako, zuen seme-alabak **zerbait morea jantzita edo apaingarri moreren batez etortzera gonbidatu nahi ditugu**.



DBH

DBH3: ikasbidaiaren kobrantza

Apirilaren 28-29 bitartean Baionara egingo dugun Ikasbidaiaren kostuaren lehen zatia kobratuko zaizue martxoaren 3an, 30 euro. Bigarren zatiaren zenbatekoa, prezioa erabat itxi ostean adierazioko zaizue.



Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatzen da. Aurten larunbata denez, ostiralean, martxoak 7an ospatuko dugu ikastola osoan. Horretarako, zuen seme-alabak **zerbait morea jantzita edo apaingarri moreren batez etortzera gonbidatu nahi ditugu.**



DBH4 eta gero zer?

Urtero bezala, ikasturte honetan ere, **DBH 4ko ORIENTAZIO-BILERAK** egingo ditugu. Zuei ere, antolaketa lanetan laguntzeko asmoz, aurrez bileren inguruko egutegia helarazten dizuegu.

DBH bukatu ondoren egin daitezkeen **ikasketa eta lanbide-irtenbideei** buruzko bileren [egutegia](#)

Bilera guztiak DBHko eraikinean egingo dira.

